



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Saillburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

EBAZPENA, 2017ko ekainaren 21ekoa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2016-2017ko ikasturtean etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beka-eskaeren ebazpena ematen du.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak, 2016ko uztailaren 8ko aginduaren bitartez (2016ko uztailaren 13ko EHAA), 2016-2017ko ikasturtean etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beken deialdia egin zuen.

Hautaketa-batzordeak, 2017ko ekainaren 14an, aurkeztutako bikaintasun akademikoko beken eskaeren ebazpen-proposamena aurkeztu egin dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena-zenbakia dutenei beka ematea (I. Eranskina), guztira 120.000 €koa.

Bigarrena.- Baldintzak betetzen ez dituzten edo beka lortzeko behar den ordena-zenbakia ez duten eskatzaileei beka ukatzea (II. Eranskina), III. Eranskinean agertzen diren ukatze kodeekin.

Hirugarrena.- Interesatuak, gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 21a.

**UNIBERTSITATE POLITIKA ETA
KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA**

Miren Artaraz Miñón